Pentsamenduak

ANE GONZALEZ RUIZ DE LARRAMENDI
DBH 3. eta 4. kurtsoak 1. saria
Iruñeko Biurdana BHI

Gorde nazazu altzoan,
ez hitz egin, ez abestu,
ez apurtu sosegu gozoa.
Maite nazazu isilpean,
inork entzuten ez gaituenean,
ortzean galdutako bi islada.

Panpin ahaztua naiz,
jendeak baztertutakoa,
arima malenkoniatsua,
negar egitea ezinezkoa duen mamu tristea.

Bizitzak ez du zentzurik,
Irudi estranbotiko krudelak,
jendearen begirada izoztuak,
kalkulu matematiko lehorrak,
koadro surrealista bat.

Baina beti gelditzen da zerbait,
arrasto ezabagaitza, iraunkorra,
betirako itxaropen argitsua.
Ilunbeen aretik ateratako
izar berri distiratsua.

Izar hori da bizirik mantendu,
Egunero kementsu bihurtzen nauena,
Izarra amets lasaia da, fantasi maitagarria.
Zuk erreskatatuko nauzun egunean pentsatzen dut.

Klasekoek beti ilargian zaudela esaten digute

SAIOA ALKAIZA GUALLAR
DBH 3. eta 4. kurtsoak 3. saria
Iruñeko Eunate BHI

Klase orduan nago ni eta
galdu egin dut norantza
errealitate aspergarria
pentsamendurantz balantza
buru barnean dudan munduan
murgildu egin naiz antza
ene bizitza guztia hor dago
bertan nire esperantza
amets artean atseden hartu
ahaztu bizitza latza
ilusioetan nire burua
benetan da aberatsa
nire bizitza ta existentzia
ilusio horietan datza
beti ilargian denbora pasa
izarrekin egin dantza.

Hainbat problema mundu
honetan
reflexioak tarteko
zenbat pertsona daude kartzelan
injustiziaren menpeko?

Abiada Handiko Trena badator
gure lurrak suntsitzeko
eta gazteak atxiloturik
soilik gazte ez izateko
etxebizitza mundua dago
espekulazioz lepo
horrela zenbait poltsiko bete
beste batzunak husteko.
Gure herria nahiz arazotan
dagoen guztiz konpleto
nire buruan dago denbora
soilik zugan pentsatzeko.

Zure maitasun apurra laister
niri zenidan ukatu
baina buruan oraindik zaitut…
sentitzen dut ta barkatu.
Bizitza osoan asko sufritu
hori da niretzat patu
txiki-txikiak ginenetikan
beti hainbeste maitatu
nire bihotzan erdigunea
zu zintudan izendatu
maita gaitezen, ahaztu dena
beldur guztiak akatu
soilik zu ta ni gaude munduan
momentu hauxe gozatu…
burua jaso, klasean nago
dena dut imajinatu.